

INTERNAZIONALIZAZIO PROGRAMA

HELBURUA: Gipuzkoako enpresek egiten dituzten produktu berriak saltzeko eta nazioartean merkaturatzeko ekintzak eta Gipuzkoako enpresen atzerriko produkzio ezarpenak sustatzea eta bultzatzea, internazionalizazioaren potentziala aprobetxatuz enpresa-lehiakortasunaren palanka gisa.

ONURADUNAK:

Entitate onuradunen tamaina Gipuzkoan kokatuta dauden enpresa gipuzkoar txiki eta ertainak (ETEak) izango dira.

PROIEKTUEN EZAUGARRIAK:

1. Produktu berria nazioartean merkaturatzea:

Diruz lagundu ahal izango dira kanpoan kontratatutako lanak eta zerbitzuak, betiere produktu berria kanpoan merkaturatzera bideratutako ekintzetan; hauek dira diruz lagundu daitezkeen jarduketak:

- Internazionalizazio arloko aholkularitza, kontsultoretza eta prestakuntza gastuak.
- Marketineko eta merkaturatzeko ekintza garrantzitsuak: zabalkundea, marketina edo sustapena egitea, edo garrantzizko azoka, bil tzar edo ekitaldietan aurkeztea barne dutenak, edo antzeko beste ekintza batzuk.

Aurreko puntuan aipatzen diren marketineko eta merkaturatzeko ekintzekin batera doazenean, kontuan hartu ahal izango dira:

- Patente eskaerak, aurreko azterketa eta aholkularitza barne. Marka erregistratzea, eta izen komertzialak. Hori guztia xede diren herrialdeetara eta merkaturatu nahi den produktura orientatuta.

Hori guztia xede diren herrialdeetara eta merkaturatu nahi den produktura orientatuta.

2. Atzerriko ezarpen produktiboak:

Gipuzkoako enpresa nagusiaren partaidetza gehiengoa izango da ezarritako kapitalean. Gutxieneko inbertsioa, hau izango da:

- 750.000 euro produkzio enpresen proiektuetan, enpresa txiki eta ertainak direnean
- 350.000 euro zerbitzu enpresen proiektuetan, enpresa txiki eta ertainak direnean

Enpresa handien kasuan, gutxieneko inbertsioa %30 gehiagokoa izango da.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA:

1. Produktu berria nazioartean merkaturatzea:

Diru laguntzaren gehieneko portzentajea diruz lagundu daitezkeen gastuen % 35 izango da.

Entitate bakoitzeko 30.000 euroko diru laguntza eman daiteke gehienez ere.

2. Atzerriko ezarpen produktiboak:

Diru laguntzen gehieneko portzentajea atzerrian eratutako enpresen baliabide iraunkorretara bideratutako ekarpenen % 40a izango da.

Entitate bakoitzeko gehieneko diru laguntza 100.000 eurokoa izango da.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA:

Eskaera orria eta hari erantsitako agiriak bide elektroniko, informatiko edo telematikoz aurkeztea lehenesten da: Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (<http://www.egoitza.gipuzkoa.eus>) sartu eta diru laguntzaren atarira jota.

Eskaerak aurkezteko epea 2021ko martxoaren 12an hasiko da; eta **2021ko apirilaren 12an** bukatuko da, eguerdiko 12:00etan.